



«Nazio izaera» aldarrikatu dute Tolosaldeko Naziotasun Egunean

VILLABONA ▶ Bai Euskal Herriari taldeak antolatuta,
ekitaldi politikoa eta bazkaria egin zituzten atzo ▶ 7



Ekitaldi politikoaren ondoren, bazkari legea egin zuten Villabonan bildutakoek. ASIER IMAZ



N. URBIZU

Aurrera KEren Eguna jendetsua izan da

LEITZA ▶ Euria izan zen protagonista egun
guztian; hala ere, aurreikusita zeuden
ekitaldi gehienak egin zituzten ▶ 6

eskualdeko aukera hoberenak!

Idra Nordikoak

Ibaiondo 15 • Irura
943 69 16 77
contacto@idranordicos.net

“Natura bezain eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PEUGEOT 308 berria

www.saldias-miguel.com

Saldías Miguel

ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

% 60 arteko aurrezkia
zure ibilgailuaren
aseguran

Iturrioz kalea, 14 • BEASAIN
Tel.: 943 085 600 • Faxa: 943 085 400

Nafarroa Etorbidea, 12 beheka • 20400 Tolosa
Tel. 943 651 189 • Faxa: 943 653 462

San Juan kalea, 6 • ANOETA
Tel.: 943 698 004 • Faxa: 943 653 462

UZTURRETIK ▶ ANDU MARTINEZ DE RITUERTO

Non utzi dugu txirrindua?



Udako oporrak joan dira eta denok gure eginbeharretara itzuli gara. Lanera edo eskolatera itzultzearekin batera egunak uzten dizkigun tarte libre horietan egiten ditugun ekintzak ere berreskuratatu ditugu. Lanegunetan izaten dugun aisialdirako tarte laburra ariketa fisikoari, kirolari eskaintzen diogunon multzoa zabalda da oso. Aitortuko dizuet poza sentitzen dudala gazte eta ez hain gazteak, entrenamendu saioetan ikusten ditudanean, Oria ibaian arraunean (irudi

ederra eskaintzen digute gainera). Berazubiko pistan saltoka eta lasterka, Artzabaltza (Izaskungo eta Villabonako bideak ahaztu gabe) inguruan paseoan (Uzturrera egunero igotzen direnak ere badira) eta korrika —Behobia-Donostia lasterketak bazter guztiak lasterkariz betetzen ditu!— txirrinduz batera eta bestera, dantzan toki ezberdinetan, Kiroldegian eta ikastetxeetan futbola, saskibaloia, judo, igeriketa...

Pozgarria da bai, aberastuko dituen jarduerak egiten horrenbeste jende ikustea.

Honekin lotuta eta mugikortasunaren astea dela eta, honako galdera hau etorri zait burura: horren herri kirolzalea izanik zergatik ez dugu txirrindua

garraio moduan gehiago erabiltzen? Gure herri eta bideetan autoa jaun eta jabe izan da azken 25 urteetan, hala ere, badirudi azken aldian oinezkoentzako eta txirrindularientzako toki gehiago bilatzen ari direla administrazio ezberdinetatik (espaloiak eta oinezkoentzako eremuak zabaldu eta bide gorriak egiten ari dira) Dena den zenbait tokietan polemika ugari sortu duten obrak izan dira: alde batetik kotoak aparkatzeko toki gutxiago dagoela diote batzuk; nik, aukeran, nahiago ditut oinezkoentzako eremu gehiago nahiz eta automobilak urrutiago utzi behar. Eta bestetik oinezkoak eta txirrindulariak partekatu behar dituzten atalek —Tolosan egiten ari den bide gorriaren atal ugari horrela egiten ari

dira—sortu dute eztabaida. Konponbidea sinplea izanik ere ez dakit erraza egingo ote zaigun betetzea, oinez gozanean bide gorriari erreparatu eta libre utzi behar dugu eta txirrinduz gozanean berriz mantso eta adi joan behar dugu.

Mugikortasun jasangarriagoa lortzeko bideetatik bat hau litzateke, oinez zein bizikletaz mugitzeko aukerak erraztu eta beste bat, garraio publikoa hobetu, ugaritu eta merkeagoa jarriz, txirrinduak garraio publikoan eramateko erraztasunak ematea ahaztu gabe; era horretan txirrinduz egiteko luzeegia izan daitekeen bidaia garraio publikoan egin ahal izango genukeen eta goazen tokira iritsita txirrinduz mugituko gineteke.

Oinez, txirrinduz zein garraio publikoan mugitzeak ingurugiroari mesede egiteaz gain, guri ere osasuna eta patxada handiagoa emango digu.

ARGAZKI ZAHARRA ▶

Aurrera elkartearen historiari begirada bat

Erredakzioa ▶ Leitzan historia luzea du Aurrera elkarteak. Kultur, kirol eta oro har herri mugimenduaren bizkarrezurra izan da Aurrera urteetan zehar herrian, bertan antolatzen ziren ekitaldi gehienetan elkarteak parte hartu baitu. Horren omenez, atzo Aurreraren Eguna antolatu zuten estreinakoz. Ekitaldiz beteriko eguna antolatzeaz gain argazki zaharren erakusketa ere atondu zuten egun guztian zehar Aurreraren egoitzan, non Aurrera elkartearen irudi zaharrak bildu dituzten. Eratu berri den etxe-batzordeak antolatutako erakusketa izan zen. Batzorde hau azkeneko bilan osatu zen eta egoitzari erabilera ematea du helburu. Argazkien adibide dira bi hauek: lehen argazkian Aurrera dantza taldea ikus daiteke, 1947. urtean. Bigarren argazkia, berriz, 1927. urteko argazkia da eta bertan Leitzako lehenengo futbol taldeko partaideak ageri dira. 80 urte igaro dira garai hartatik eta hamaika istorio jazo dira herrian. Baina Aurrera futbol taldea mantentzen da egun. Baita beste alorretan Aurrerak dituen taldeak ere. Benetan omenaldia merezi dute Aurrera elkartearen bizitza luzatu duten guztiak, bai eta bertan parte hartu duten guztiak ere. **AURRERA**

ELKARTEA



ESANA ▶



OINATZ BENGOETXEA
PILOTARIA

«Azkeneko urteetan ez dut liburu bakar bat ere irakurri; prentsa, ordea, irakurtzen dut»

«Metallica taldekoak entzuten izan nintzen Bilbon; gustura entzungo nitzuke berriro»

«Ez dut egon naizen lekuen oroitzapen txarrik; iaz Polinesian izan nintzen eta leku zoragarria da»

Gaztetxulo (2007/09)



IZARO SAIZAR
ABESLARIA

«Jaio nintzenetik eduki dut musikarekiko zaletasuna eta berau ezagutzeko aukera»

Hi, Gazte! (2007/09)

IRITZIA ▶ MARTXELI SAGASTUME (AITZOL UDAL EUSKALTEGIKO ZUZENDARIA)

Gogoratzen al zarete...?

Nola hasi ginen? Ederki kostata, azaroan; beraz, orduan beteko ditugu 25 urteak.

Euskal Herria plazako leku hura ona zen, argia, zaharra baina ederra. Hori bai, beti adabakiak jartzen: hau konpondu, hura konpondu, bat berritu, bestea aldatu... Azkenean, maizter berriak nagusi jarri zitzaizkigun, termitak, alegia, eta guk kanpora atera behar izan genuen korrika eta presaka. Bitarteko hamabost urteetan, dena dela, une gogoangarri asko eta asko bizi izan genituen.

Gogoratzen al zarete hango gela batzuen izenekin? Oilategia, irakasle gehienak neskak ginen eta... Putre batzordea, meriendetako pastel guztiak harrapazka jaten zituzten mutil puska batzuk bai baitziren... Kartzela: eraikin hura garai batean epaitegia baitzen, eta kartzela ere bazuen bertan... Eta gu hantxe, eskolak ematen, goiko leihoko burdinen artetik kanpora begira... Bideo-gela ere izan genuen, gero gaztetxe bihurtuko zena... Haiek urteak, haiek!

Baliabide askorik ez genuen, ezta idazmakina xixtrin bat ere hasieran, fotokopiagailua gutxiago, baina ez zion ajola, motibazioa landu beharrik ez genuen izaten orduan, ez ikasleek, ez irakasleek... Lanerako gogoia aski zen i(ra)kasteko. Aste Santuan ere lan egiten genuen orduan... Oraingo ikasleei esan egin behar etortzeko! Baita uztaiaren ere, eskolak izaten ziren: euskaltegian bertan trinkoak (gogoratzen al zarete goizeko zortzietarako etorri eta San Ferminetako entzierroak nola ikusten genituen eskolak ematen hasi aurretik?) eta gainera, hemendik kanpo, barnetegiak...

Lanarekin lotuta, festa ere bai: noiznahi

HASIERA

«Ez genuen ezta idazmakina xixtrin bat baina ez zion ajola, motibazioa landu beharrik ez genuen izaten orduan»

irtenaldiak, egun pasak, arkupetako afari mundial haiek, patata tortila lehiaketa eta guzti, toka, lasterketa, elkarreetako edo sagardotegietako afariak, ikastaroak (sukaldaritzak, sendabelarrak...), hitzaldiak... Zer ez ote genuen egiten orduan?

Pixkanaka, hoheruntz

Eta 1997an Plaza Berrira. Hura ere ederki egokitu zuten guretzat, baina behin behinoko egoitza zen, polita baina «hotza», serioa... Eta denok seriotzen-edo hasi ginen, nonbait, urteak ez baitira alferrik pasatzen! Helburuak aldatzen joan ziren, materiala eta metodologia ere bai...

Eta, azkenik, oraingoz behintzat, Rondilla kalera: lekua ona, baliabidez ere ondo hornituta, esperientziak jantzitako irakasleak, ikasle asko gero eta autonomoagoak, denek gero eta asti gutxiago hona etortzeko, gogoak baino gehiago beharrrak bultzatuta...

25 urte! Errez esaten da! Beste zenbat beteko ote ditugu?

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Gogorra egin al zaizu lanera bueltatzea?

Bai. Beti egiten da gogorra egun asko oporretan igaro eta gero lanera bueltatzea, baina nire kasuan lehen bi egunetan izaten da. Gero ohitu egiten zara, edo ohitu beharra dago behintzat.

OLATZ ▶

Bai, nori ez zaio gogorra egiten? Arinago egiteko, egokiena urtean zehar opor egunak banatuagoak edukitzea izango litzatekeela uste dut.

GORKA ▶

Niri ez zait hain gogorra egin itzulera. Lana gustatzen bazazu zergatik izango da ba gogorra?

ARANTXA ▶

Dagoeneko ohitu gara berriro lan erritmoari. Lanera bueltatzea baino, gogoragoa egin zitzaizten bezpera. Urduri nengoen eta bazirudien nire lehen lan eguna zela, eta 10 urte daramatzat lanean, pentsa! Hala ere, giro bikaina daukat lanean eta horrek gauzak dezente errazten ditu, ez? Animo guztioi datorren uda gertuago dagoela!

AITOR ▶

Niri tontakeriak iruditzen zaizkit lanera bueltarena, opor osteko depresioarena eta komunikabideek asmatu dituzten tontakeria horiek guztiak. Bizitzaren legea da lan egitea eta opor ostean, ba lanera. Ez dago besterik. Sindrome hori gizarteak berak asmatu duela iruditzen zait, alegia, ez dela benetan ematen horrelako depresiorik. Ez behintzat egunero iratzargailuak jotzen duenean izaten duzun depresio hori bai-

no gehiago. Askotan aspertuta gaude eta errealitatean ematen ez diren gaixotasunak ere asmatzen ditugu. Egun guztiak disfrutatuta behar dira, lanean zaudenean ere bai. Zergatik ez?

MADDI ▶

Ni hemen egon naiz uda guztia, inora irten gabe. Eta badakizue zer? Gogoa eta guzti nuen lanean hasteko. Hilabete aspergarria da hemen geratzeko. Lagun eta inguruko guztiak kanpoan eta ni asper-asper eginda egon naiz. Egunerokotasunera bueltatzeak on egin didala uste dut. Ez dago egunero egiten diren gauzetaz disfrutatzea baino gauza hobegorik.

ESTI ▶

Niri oso gogorra egin zait. Oporraldia luzeagoa izan beharko luke. Ea loteria edo kiniela asmatzen dugun.

JON ▶

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Aste honetan galdera hau proposatu du gure HITZAren webgunean. «Regina Otaolak hartu zuen Lizartzako alkatetza (PP): zer iruditzen zaizu?». Hauexek dira botoa eman duzuenon artean izan diren emaitzak. Inkesta edo eztabaida gehiagotan parte hartu nahi baduzu zure iritzia emanez, sartu gure webgunean.

Legea betetzen ari dira	<input type="checkbox"/>	%8
Antidemokratikoa da	<input type="checkbox"/>	%66
Besterik	<input type="checkbox"/>	%25



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

VI. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

Ederren artean ederrenak

HITZAko epaimahaiak erabaki ditu VI. HITZA Argazki Lehiaketako zortzi finalistak; harpidedunek erabakiko dute irabazle nagusia zein da; lehen hiru sailkatuek jasoko dituzte sariak

ERREDAKZIOA

Irakurlearen udako orotzapenak bildu ditu azken astean Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAko VI. HITZA Argazki Lehiaketarako Gutuzira 68 argazki heldu dira

lehiaketara: paisaiak, pertsonen lehen planoak, erakuntzak... Era guztietako argazkiak. Guztiek merxei dute alpainmen berezia, baina guztietan bi ornaldi haustean aurkitzen diren zortzi argazkiak aukeratu

ditu HITZAko epaimahaiak. Orain harpidedunen txanda da, izan ere, hauen esku gertzen da irabazlea nor den zehaztea. Irabazlea gaur zortzi, igandarekin, argitaratuko da egunkarian. Zorte on guztio!



1

Jon Pagola (Tolosa). «Marokoko Aslah da herria eta koben hondartzak deitzen diote lekuan».

XEHETASUNAK ▶

IRABAZLEENTZAKO SARIAK

- ▶ Sari nagusia: Mendeba-Lekeiteko Villa Itsaso hotelean bi pertsonentzako asleburua.
- ▶ Bigarren sari-dunarentzat, Zumaiako talasoterapi talasoterapia zentroan bi pertsonentzako zirkuitua.
- ▶ Hirugarren sailkatuentzat, Tolosako Denak taberna lau pertsonentzako afaria.
- ▶ Partidaren bota ematen dufuen artean materiala zozkatuko da.

IRABAZLEEN HAUTAKETA

- ▶ **Botoa nola eman.**
- ▶ Lehiaketarako dela zehaztuz, aukeratu hitza argazkiaren zenbakia azalduz, hurremanetan jartzeko datuak jarri eta harpidedun kodea zehaztu. tolosaldeko@tolosaldeko.euzkadi.net helbidera bidali.
- ▶ Hitzako egotzara deituta: 943 55 56 95.
- ▶ **Araua.** Harpidedun bakoitzak behin eman dezake botoa.



2

Nerea Lopezegi (Leaburu). «Norvegiko fiorden argi baidalzen dut, bertako bai batek argazkilaro pose eder bat eskaini zigun».



3

Juanjo Etxebarria (Aneeta). «Gitarino sagun miradura bat dago eta horiko lehoi batek ateratako argazkia iluntzen ari dela».



4

Alain Fernandez Arizmum? (Leiza). «Uda honetan Argentina aldean izan gara, eta hementxe baidalzen dut Iguazuko ur jauzien argazki bat».



5

Leire Zabala (Tolosa). «Uda honetan egun batzuk pasa ditugu Soria aldetik. Autotik jaitsi behar izan nuen eguzki-kore soro handi hori argazki bat ateratzeko. Dena eguzki-korez beleta zegoen!»



6

Amaia Sagasti (Tolosa). «Argazki hau Ganges ibaiari ateratakoak dira, jendeak bere bizitza bertan egiten zuelan».



7

Karlos Mendibil. «Buitrongo gaztelua. Ez dago oso urrutiri joan beharrik oporetan, gure Euzkalki Herria paraje zoragarria ere bai ditugu».



8

Ainara Zubeldia Aizpuru (Ibarra). «Argentinako leku eder guztietatik bat aukeratu behar eta hemen Perito Moreno glaziararen argazkia baidalzen dizuek».

Orendain

www.orendain.com

Bizi ingurune zoragarrian

Peñin Txarretako 19 Etxeak eta 10 apartekoak

Orendain 1911

www.orendain.com

LEIZE

Tolosan zure arropa denda

BERRIA

Korreo kalea, 19

hitza Harpidedunen txokoa

Donostiako ZINEMALDIRA izateko **27 sarrerara pare zozketatu ditugu eta hauek dira irabazleak:**

▶ Geno Otamendi Zubeldia	▶ Inaxio Oñozola Gábarza	▶ Leire Oñegi Goni
▶ Sagrario Agirretxe Sagardoa	▶ Ioskun Zandegi Agirretxe Sagardoa	▶ Maritxu Bernabe Geroztiki
▶ Maria Jesus Tolosa Etxebarria	▶ Ester Zelaia Zugasti	▶ Garbete Ruiz de Eguiluz
▶ Ramon Otamendi	▶ Ion Iraola Barrio	▶ Antz Arana Saragüti
▶ Magoos Lopezegi Sarratekian	▶ Mari Jose Amonaritz Galloso	▶ Jose Luis Fernandez Erdotzia
▶ Mita Otamendi Eguren	▶ Pedro Mari Iturbe Usabiaga	▶ Ainara Apeztebea Ugartelegindia
▶ Maria Rosario Arrese Jauregi	▶ Andres Arregi Zinkunegi	▶ Karmele Beguiristain Jauregi
▶ Miren Joseane Zubeldia Goenaga	▶ Gemma Inestrosa Nobsain	▶ Itxaki Mujika Oñozola
▶ Elena Lakuntza Arregi	▶ Lurdes Garzarabai Itxaso	▶ Maria Luisa Arrate Zubilaga

AITZOL Udak Euskaltegiaren 25. urteurrenaren baitan...

igandean Tolosaldeko zerkausian antolatuta den **BAZKARRAKO** zozketatu ditugun **3 sarrerara pareen** irabazleak hauek dira:

- ▶ Angel Urrestiarazu (Amarotz)
- ▶ Ana Isabel Olano (Alegia)
- ▶ Pedro Ropon (Zizurkil)

Bazkario harreraren zuen izena esan eta bertan emango dizkizute sariak.

VILLABONA ▶ GIZARTEA



Bizikleta eskaintza zabala

Erredakzioa ▶ Mugikortasuna-ekin lotutako Bigarren eskuko materialaren azoka izan zen atzo Villabonan. Hara hurbildu zirenek gehienbat bizikletak eta bizikletarekin loturiko materiala aurkitu ahal izan zuten. Berdura Plazan izan zen azoka, eta nahiz eta babespean izan, goizeko lehen orduetan oraindik ez zen jende gehiegi animatu. Eskaintza, behintzat, ez zen makala izan. ASIER IMAZ

AZOKA ▶

Fruta eta perretxiko zerrenda zabala atzo

Eguraldia makala bazen ere, goiza aurrera joan ahala berotuz joan zen



Perretxiko postu bat atzo. P. A.

PABLO ALBERDI

LEITZA ▶ GIZARTEA

Aurrera KEren Egunean egin ez den bakarra, pilota partida

Euriari eta giro desatseginari aurre egin diote festa berri honetan leitzarrek, antolatutako ekitaldi ia guztiak aurrera eramanez, eta alaitasuna falta gabe

NEREA URBIZU

Aurrera KEren Eguna ospatu zuten atzo leitzarrek euripean. Ekitaldi batzuk ez zituzten aurrera eraman ahal izan, baina giroan Aurrera eguna nabarmendu zen. Goizeko dianak ez zuten huts egin: bai, ordea, plazako pilota partidek. Ia beste guztia egin zuten Leitzako plaza inguruan.

Tirolina jarri zuten Aurrera Elkarteko balkoitik Torrea taberna ingururaino. Bertatik hainbat haur pasa ziren, alda pa hori airean jaisteko. Rokodromoan ere adin ezberdinetako haur eta gaztetxoak ibili ziren. 8-10 bat metroko horma, batzuk arazorik gabe igo zuten. Goiz osoan zehar egon ziren gora eta behera. Zaldi batzuk ere ibili ziren, haurrak gainean ibiltzeko.

12:00etan dantzariak plazan izan behar ziren, baina karrapen egin zuten azkenean saio



Aurrerako dantzarien saioko momentu batean, karrapen. Askok gertutik ikusi nahi izan zuten. N. URBIZU

ederra. Ikusle asko izan zen bertan, eta dantzari trebeek txalo zaparrada jaso zuten.

Arratsaldean ere bai

Txaranga ere bere saio luzea egin zuen herrian barna, herri-tarrak poteoan ziren bitartean. Incansablesek giroa berotu zuen beste behin. Ondoren, karrapera joan ziren bazkaltzera bazkide guztiak, 10:00etatik erretzen ari ziren haragi xamurra eta hegaluzea jateko.

Bazkideek Ingurutxo ere dantzatu zuten, eta eguna elkartean bertan lunch batekin bukatu zuten. Han ez zen musika falta izan.



Aurrera Elkarteko bazkideen bazkaria prestatzen, goizean. N. URBIZU

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Amasako Iturri-Goxo jatebexan tabernari bat behar dugu arratsaldeetarako. 943 69 12 10.

SALGAI

Gitarra elektriko. Bigarren eskuko gitarra elektriko eta anplifikagailua. 664 14 88 89.

ATZOKO AZOKA ▶

Berdura Plaza	merk.	gares.
Txinarr klabelina	2,50	-
Erromeroa	4,00	6,00

Bertako produktuak

Onddoa	22,00	30,00
Mendiko angula	22,00	-
Gibelurdina	15,00	20,00

Gaia

Produktu ekologikoak

Arroza	1,90	2,00
Marmelada	3,00	3,60

IRURA ▶ GIZARTEA



Jaietako Haur eta Gazte Eguna euriaren kolorea eguzki kolore bilakatu zuen

A. Imaz ▶ Irurako jaien barnean, Haur eta Gazteen Eguna ospatu zen atzokoan. Goizean goizetik, eguraldia lagun ez bazuten ere, Gazte Festako taldearen irteera burutu zen trikilitari eta dultzaineroz alaituta. Plazatik irten eta auzoetan barrena ibili ziren. Txikienek, berriz, marrazki lehiaketan parte-hartu zuten elizako estalpean. Apar festa eta gazteen dantza-soka ondoren, haur eta gazteak bazkaltzera joan ziren.

Arratsaldean, Pirritx eta Porrotxen emanaldiaz gain, zezen mekanikoan ibiltzeko aukera ere izan zen. Iluntzean, Koma eta Zea Mays-en kontzertuak egon ziren besteak beste. Gaur, 11:00etako meza nagusiaren ondoren, Gorritiren abereak egongo dira plazan. 19:00etan herri kirol erakustaldia burutuko da eta jaietako lehen asteburua amaitzeko, Unsain Anaia 20:00etan herriko plazan. A. IMAZ

VILLABONA ▶ POLITIKA

ASIER IMAZ

Bai Euskal Herriari taldeak antolatuta, «Euskal Herria nazio bat» dela aldarrikatu zen, atzo Villabonan egindako Tolosaldeko Naziotasun Egunean. 10:00etatik aurrera, ekitaldi ugari burutu zituzten jai giroan, «naziotasunaren aldeko oihua» zabaltzeko. Euskal Herriko Nortasun Agiria (EHNA) tramitzatzeko aukera ere izan zuten bertan, udaletxea zabalik izan baitzen goiz guztian. Txistulari, dultzainero eta txekor errea janaz, herri bazkaria ere ospatu zuten atzokoan.

Ekitaldi politikoa

Euriak 13:00ak aldera plaza inguruan bildu zen jendea atzerpe bila jarri zuen. Txalaparta erritmoek ordea, ekitaldi politi-

«Nazio bat garela» aldarrikatu dute Naziotasun Egunean

Bai Euskal Herriari taldeak Tolosaldeko Naziotasun Eguna ospatu zuen ekitaldi kultural, politiko eta bazkari batekin

koan parte hartzeko asmoz gerturatu zen jendea, plazara gerturatu zuen.

Eszenatokia ez zegoen biluzik, dekorazio moduan, Euskal Herriko mapa ipinia zegoen atzealdean, *Nazio bat gara* irakur zitekeelarik. Inguruan berriz, 6 lurraldeen armarrak

aurkitzen ziren. Lehenik, bertan elkartu zirenei eskerrak eman zizkien ekitaldiaren aurkezleak. Ondoren Benito Lertxundiaren kantu bat oinarri zutela, herriko hainbat gazte egun horretarako prestatu zuten dantza eskaini zuten.

Hitzaldien orduan, Antton Izagirre tolosarrak, Udalbiltzaren izenean, hitz egin zuen, hautetsien topaguneak 8 urte bete dituela gogoratzuz: «Aste

honetan bete dira 8 urte Udalbiltza sortu genuenetik. Nazio instituzio gisa sortu genuen 5 zutaberen inguruan. Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzeko sortu zen Udalbiltza». Oinarri horiek gaurkotatzen ez dutela galdu azaldu zuen Antton Izagirrek bere hitzaldian. EHNA ere aldarrikatu zuen, «gure nortasuna adierazteko eta gure naziotasuna azaltzeko» balio duela esanaz.



Zutika egurra mozten. A. IMAZ

Honetaz gain, «arlo guztietan herritarrek eginiko eguneroko lanarekin oztupoak menperatzea lortuko dugula», azaldu zuen.

Ekitaldiaren amaieran, bertso eta kantuez gain, Espainia eta Frantziako koloreak zituen egurra moztu zuten.



Ekitaldi politikokoan EHNA aldarrikatu zuten besteak beste. ASIER IMAZ

MINTZALAGUNA TOLOSAN
EUSKAL HIZTUNAK BEHAR DITUGU

Euskararen alde egin nahi baduzu, eta horretarako astean ordu bete baldin badaukazu, dei ezazu telefono honetara:
605 61 21 25 edo idatzi mintzalaguna@euskalherria.org

MINTZALAGUNA taldea

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
HELDUAK ETA HAURRAK

AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

Joxean

- iturgintza
- aire egokitu
- inst. industrialak
- berokuntza
- gasa

Jai zorionsuak opa dizkizue irurar guztiei

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • 656416808



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko irailaren 23a, igandea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arrratsaldez



beroena

22

hotzena

16

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arrratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(balantzak argitzeko, harpidetun egileko...)

902 82 02 01

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
Leizta. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

Bihar

Tolosa. Ebebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
Iruztzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK!

Aitziber Aiestaran Elordi (Ibarra), Gaur 6 urte. Aitaxo eta amaxo eta familiaren partetik. Bereziki Ane, Aratz, Izurde eta Ilargiren partetik.



ZORIONAK

Lagunen partetik. Zorionak!



URTE ASKOAN

Haritz Mujika. Bihar 12 urte beteko ditu. Muxu handi bat familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Maite eta Haimar. Borrokan bizi den herria ez da inoiz hilko. Maitasunez lehengusauk.



URTE ASKOAN

Haimar eta Maite. Gaur banaka, bihar batera denok kalera. Iraitza ta osasuna.



URTE ASKOAN!

Oso ondo egiten duzulako, mugitu besoak olatuak bezala, xuabe, xuabe, xup, xup, xuabe, hey Maite, hasi dantzatzen! Zure lagunak!



ZORIONAK!

Matalasen jauregiko harresietatik, GORA ATZO, GAUR ETA BIHARKO GUDARIAK!